



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

Hautaketa-probetarako deialdia, 2018, 2019 eta 2020ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkienak, kategoria hauetarako: Fisioterapeuta, Gizarteratzeko Goi-mailako Teknikaria eta Gizarte-Hezitzailea.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2021eko azaroaren 11n eginiko ohiko bileran (7/21 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzak onartu ziren 2018ko uztailaren 12ko, 2019ko abenduaren 20ko eta 2020ko abenduaren 30eko erabakien bidez. Eskaintza horiekin bat etorritik, fisioterapeutaren, gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren eta gizarte-hezitzailearen lanpostuak betetzeko hautaketa-probetarako deialdia egitea, dagozkion Eranskinetan zerrendatzen direnak.

Bigarrena: Aipatutako deialdiak arautuko dituzten Oinarri orokorrak eta espezifikokoak onartzea. Oinarri horiek, jasota gera daitezten, erabaki honen Eranskin gisa jaso dira.

Hirugarrena: Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta, laburbilduta, Estatuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFÉko web-orrian argitaratzea.

Laugarrena: GUFÉko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.»

Bilbon, 2021eko azaroaren 11n. — Gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA****ONARRI OROKORRAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

1. Oinarri hauen xedea hau da: zehazten diren plazak lehiaketa-oposizio sistema-ren bidez betetzeko hautaprobaren deialdia arautzea, deialdiaren oinarri berezietan zehaztutako erreserbak eginda.

2. Barne-igoerako txanden erreserbatik datozen hautagaiek, dagozkien azterketak gainditzen badituzte, lehentasuna izango dute, beti, gainerako hautagaien aldean deialdi honetako lanpostu hutsak betetzeko.

Barne-igoerarako erreserbatutako plazak bete gabe gelditzen badira, haietara inor aurkeztu ez delako, hautagaiek azterketak gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez dutelako edo 2. oinarriko betekizunak betetzen ez dituztelako, plaza horiek txanda askeko hautagaien eskaintako plazei gehituko zaizkie, betiere legezko mugarik ez badago aurrekontuan.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako barne-igoerako plazaren bat bete gabe geratzen bada, barne-igoerako txanda arruntean eskaintzen diren plazei gehituko zaie.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txanda libreko plazek, hutsik geratzen badira, beren txandan deitutakoak handituko dituzte (ezingo dira txanda irekiari gehitu).

3. Desgaitasuna duten hautagaietako batek desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandara aurkeztu eta dagozkion ariketak gainditu baditu, baina plazarik lortu ez badu, txanda askean sartuko da, lortu duen puntuazioaren hurrenkeraren arabera, baldin eta txanda askeko beste hautagai batzuek lortutako puntuazioa baino handiagoa lortu badu.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dauden plazen artean betetzen direnak deialdiko plaza guztien ehuneko hirura heltzen ez badira, bete ez diren plazak hurrengo eskaintzaren ehuneko zazpiko kupoari batuko zaizkio, ehuneko hamarreko gehieneko mugarekin.

4. Nolanahi ere, derrigorrezko hizkuntza-eskakizun jakin bat ezarrita duten deialdiko plazak betetzeko, beharrezkoa izango da hautagaiek hizkuntza-eskakizun hori oinarri hauetan ezartzen den moduan egiaztaturik izatea.

5. Epaimahaiak ezin izango du eskaintako plaza-kopurua baino pertsona gehiago aukeratu, eta muga hori gaindituko balute, erabat eta berez baliogabe izango lirateke proposamenak.

6. Halaber, sexuen arteko aukera-berdintasunari buruzko printzipioarekiko konpromisoa deklaratzeko da, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko langileak sartzeko prozedura gidatzen duen.

Bigarrena. — Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak

1. Hauek dira:

a) Egoera hauetako bat gertatzea:

— Europar Batasuneko herritarra izatea, bai hautagaia edo haren ezkontidea (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), bai hautagaiaren ondorengoak edo haren ezkontidearenak (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), baldin eta ondorengook hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, urte gehiago izanik, gurasoen mende bizi badira oraindik.

— Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen ezarpen-eremuaren barruan egotea, baldin eta hitzarmen horietan langileen zirkulazio-askatasuna ezar badaiteke.

— Horiez gainera, Oinarriko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera enplegu publikoa eskuratzeko aukera duten atzerriarrak izatea.



- b) Hamasei (16) urte beteta izatea, baina derrigorrezko erretirorako adinik oraindik ez izatea.
 - c) Zereginak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea. Bizkaiko Foru Aldundiko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuko Desgaitasuna Ebaluatze Atalake emandako irizpen loteslearen bidez egingo da egiaztapen hori.
 - d) Diziplinazko espediente baten bitartez administrazio publikoetarik edozeinen zerbitzutik bereizia ez izatea, eta eginkizun publikoak egiteko ezgaiturik ez egotea. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ez egotea desgaituta edo pareko egoera batean, eta ez egotea dagokion estatuan baldintza beretan enplegu publikoa betetzea eragozten duen diziiplina-zehapenaren mende edo pareko egoera baten mende.
 - e) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua eskatzen duen titulua edukitzea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea; titulu hori deialdiaren oinarri berezietan dago zehazturik. Tituluak atzerrian lortu dituzten hautagaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo badutela, behintzat, homologazioaren ziurtagiria.
 - f) Lanpostuen zerrendan dagozkion plaza edo lanpostuetarako zehazten duen beste edozein baldintza betetzea, deialdi bakoitzeko oinarri berezietan ezartzen denarekin bat.
2. Barne-igoerarako eta desgaitasuna duten pertsonen barne-igoerarako gordetako plazetara aurkezten diren hautagaiek jarduneko zerbitzuan edo pareko legezko egoeran egon beharko dute jatorrizko plazan, eta betekizun hauek bete beharko dituzte:
- a) GUFeko lan-kontratudun langile izatea, lan-kontratu mugagabe finkoarekin, lortu nahi den plazaren azpiko lehen sailkapen-taldeko plaza batean, edo talde bereko plaza batean, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.
 - b) Jatorrizko plazan zerbitzuan bi urte beteta izatea, GUFeko lan-kontratudun langile finko legez.
 - c) Lortu nahi den plaza eskuratzeko ezartzen den titulazioa edo, hala badagokio, antzintasuna izatea, eta gainerako betekizunak betetzea.
- Izangaiak txanda honetan parte hartzeko baldintzak betetzen ez baditu, ofizioz uler-tuko da eskabidea txanda librean aurkeztu dela.
3. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetarako lehiatzen direnek legezko izaera hori eduki behar dute aitortua, %33ko portzentajearen edo altuagoan. Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dutela: ezintasun iraunkor oso bat dela-eta pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorra edo desgaitasuna dela-eta erretiro-pentsio bat aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.
4. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira betekizun horiek guztiak, salbu eta hizkuntza-eskakizunaren betekizuna, berau berariazko oinarrietan aurreikusitako euskara-ariketa idatzia egiteko eguna baino lehen egiaztatu beharko baita. Halaber, beharrezkoa izango da betekizun horiei guztiei eustea hautaketa-prozesuan zehar, harik eta kontratazioa egin arte.

Hirugarrena. — Eskaera-orriak

1. Nola aurkeztu eskabideak

1.1. Eskaera-orriak eranskinean ageri den eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira; ereduak ifas.bizkaia.eus erakundearen web-orrian dago eskuragarri («LEP Deialdia»).

1.2. Onartuak izateko eta, hala denean, hautaprotetan parte-hartu ahal izateko, hautagaiek nahikoa izango dute eskaera-orrian adieraztea eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela; horretarako, eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da erreferentzia-data, salbu eta hizkuntza-eskakizunaren betekizunaren



kasuan, berau berariazko oinarrietan aurreikusitako euskara-ariketa idatzia egiteko eguna baino lehen egiaztatu beharko baita.

1.3. Eskaera-orriarekin batera hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

- a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia edo, atzerritarra izanez gero, agiri baliokide batena.
- b) Deialdiaren oinarri berezietan eskaturiko titulua edo hura lortzeko eskubideak ordainduta daudela egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, haien kopia.
- c) Aurkezten diren merezimenduen zerrenda.
- d) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzen duten hautagaiek, gainera, desgaitasunaren ziurtagiria aurkeztu behar dute.
- e) Izen-emate tasa ordaindu izanaren ziurtagiria.
- f) Tasa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, hala badagokio.

1.4. Eskaera-orrian adierazi behar da, batetik, sarbidea lehiaketa-oposizioa dela eta, bestetik, zein txandatan parte hartu nahi den: a) txanda askea; b) barne-igoera; c) desgaitasuna duten pertsonen txanda edo d) desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoera. Lau txanda horietatik batean baino ezin da parte hartu.

Desgaitasuna duten pertsonen txandaren bidez eta desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerako txandaren bidez lehiatzen direnek denbora edo/eta baliabiderik egokitzea behar badute, hala adierazi beharko dute, eta horretarako arrazoia azaldu beharko dute.

1.5. Hizkuntza atalean, oposizio-faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan (euskara edo gaztelaniaz) egin nahi diren adierazi beharko da.

1.6. «Euskara» atalean, egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna adierazi beharko da, bai eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko euskara-ariketa egin nahi den eta zein hizkuntza-eskakizunetako den ere. Adierazi ezean, ezin izango da hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egin.

2. *Datu pertsonalen babesa eta kudeaketa*

Parte-hartzaileek emandako datuak hautaketa-prozesua kudeatzeko eta prozesu horretatik eratorritako aldi baterako lan-poltsa kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Pertsonen Zuzendaritza Sailak, izapidetze osoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa betetzen dela zainduko du.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezerezteko eskubideak Zerbitzu Orokorretako Departamentuko buruaren aurrean baliatuko dira: Ugasko, 5 bis, 1. solairua, 48014-Bilbo.

3. *Eskaera-orriak aurkezteko tokia*

3.1. Eskaera-orriak telematikoki aurkeztuko dira, ifas.bizkaia.eus orrian erabilgarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez («LEP Deialdia»).

Herritar guztiak aurkezteko aukera izan dezaten bermatzeko, Foru Erakunde honek zuzeneko arreta egiteko bulego bat jarriko du, non baliabide informatiko guztiak egongo diren izapideak egin ahal izateko. Web-orrian (lan-eskaintza publikoa) argitaratuko da helbidea, bai eta GUFeko iragarki-taulan ere.

Eskaera-orriarekin batera, eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da nahitaez, eskaneaturik, hirugarren oinarriaren 1. zenbakian ezarritakoarekin bat.

3.2. Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan.

**4. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskaera-orriak egutegiko hogei (20) eguneko epearen barruan aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

5. Eskaera-orrietako akatsak

Eskaera-orriak azaldutako epearen barruan eta eran ez aurkezteak hautagaia baztertuta geratzea ekarriko du.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat, eskaera-orrietan akatsik egonez gero, interesdunari errekerimendua egingo zaio —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Foru Erakunde honen iragarki-taulan zein web-orrian argitaratuko den iragarki baten bidez— hamar (10) eguneko epean akatsa edo gabezia zuzentzeko. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horri buruzko ebazpena eman ondoren.

6. Tasak

1/2021 Foru Arauarekin bat etorritik, otsailaren 3koa, zeinaren bidez tasa bat ezartzen den Bizkaiko Foru Aldundian eta haren erakunde autonomoetan langile sartzeko hautaprobak egiteko interesa dutenei behar diren zerbitzuak emateko, bada, hautaprotetan parte hartu ahal izateko hautagai bakoitzak izen-emateagatik tasa ordaindu beharko du.

- Hautagai bakoitzak 12 euroko kuota ordaindu beharko du.
- Ordainketa egiteko, Kutxabaneko honako kontu-zenbakian egin behar da sarrera: ES95 2095 0611 0191 2060 4941
- Sarreraren izen-abizenak adieraziko dira, baita dagokion hautapropa ere.
- Tasaren ordainketa nominala eta indibidualizatua izango da hautaketa-prozesu bakoitzerako.
- Tasaren ordainketa eskabideak aurkezteko epearen barruan egin behar da.
- Tasa ez ordaintzea edo epea kanpo egitea erabakigarria izango da hautagaia kanpo uzteko.
- Tasa ordaintzeak ez dakar izapideak betetzeko epeak edo moduak ordezkatzeko, inola ere, oinarri hauetan aurreikusten den eran.

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

- a) %33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila duten pertsonak.
- b) Familia ugariak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- c) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 11. artikuluan aipatzen den diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak edo, hala badagokio, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. Artikuluan aipatzen den bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun diren pertsonak.
- d) Genero-indarkeriaren biktimak, gai honetan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- e) Guraso bakarreko familia.

Laugarrena.— Hautagaien onarpena

1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, GUFeko gerenteak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, hala bada, gogokio, zerrendatik baztertze arrazoia eta parte hartze eskatzen den txanda adieraziko ditu, baita oposizio-fasea egiteko aukeratutako hizkuntza ofiziala ere. Ebazpen hau GURERen web-orrian argitaratuko da (www.ifas.bizkaia.eus/LEP deialdia), iragarki-taulan; baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere, xedapen-zatian.

2. Zerrenda horietan, honako datu hauek adieraziko dira: hautagaien izena eta bi deitura, nortasun agiri nazionalaren edo, atzerritarren kasuan, dokumentu baliokidearen zenbakia eta, hala denean, ez onartzeko arrazoia.



3. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, GUFeko gerenteak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko, behin-behineko zerrendan ageri diren datu berberak adieraziz. Ebazpen hau GUFeren web-orrian argitaratuko da (www.ifas.bizkaia.eus/LEP deialdia), iragarki-taulan; baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere, xedapen-zatian.

4. Onartu eta baztertutako hautagaien zerrendak onetsiko dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio GUFeko gerenteari, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz geroko hilabeteko epearen barruan.

5. Errekurtsoa jarri bada eta hautaprobak egin behar diren egunerako ebatzi gabe badago, eragindako hautagaiak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz, baina probek ez dute baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Bosgarrena. — Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna

1. Osaera

1.1. Deialdian eskainitako plazak beteko dituzten hautagaiak epaitu behar dituzten epaimahaiak kide titularrak eta ordezkioak izango dituzte, era honetara:

— Epaimahaiburua:

- GUFeko lan-kontratudun langile finkoen artean aukeratutako pertsona bat.

— Epaimahaikideak:

- Lau kide, GUFeko lan-kontratudun langile finkoen edo Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionarioen artean hautatuak.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat.
- GUFeko lan-kontratudun langile finkoen artean aukeratutako pertsona bat.

— Idazkaria:

- GUFeko lan-kontratudun langile finkoen artean aukeratutako pertsona bat edo, hala badagokio, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari bat, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak aukeratua.

Epaimahaiak osatzeko orduan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikulua 2. zenbakian jasotako espezialitatearen printzipioa bermatuko da, baita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua 4. zenbakian ezarritako ordezkariaren orekatua ere.

1.2. Deialdia argitaratu aurreko bost (5) urteko epearen barruan hautaketa-prozesuetarako hautagaiak prestatzeko zereginetan ibili direnek ezin izango dute epaimahaiaren parte hartu.

1.3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da epaimahaietako titular eta ordezkien izenak jasotzen dituen zerrenda, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak onetsen dituen ebazpenarekin batera.

1.4. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari epaimahai kalifikatzaileetan dagozko ordezkariak gain, deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan ere hartuko dute parte erakunde horretako ordezkariak.

1.5. Epaimahaiak, edozelan ere, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu epaimahaikideekin batera lankidetzan aritzeko. Hala ere, lankidetzaren hori bere espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko da.

2 Abstenitzea

Epaimahaiko kideek uko egin beharko diote parte hartzeari eta uko-egite hori Gobernu Batzordeko presidenteari jakinarazi baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako arrazoien bat gertatzen bada.



3. *Errekusatzea*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluekin bat etorriz, aurreko artikuluan xedatutako inguruabarretako bat gertatzen denean, hautagaiek epaimahaia osatzen duten kideak errekusatu ahal izango dituzte.

4. *Eraketa*

Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun baldin eta gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria —edo haien ordezkok— eta kideen erdiak ez badaude. Idazkaria ez da kontuan hartuko zenbaketa hori egiteko.

5. *Jarduna*

5.1. Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkari lana betetzen duenak izan ezik; hark hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa emateko.

5.2. Epaimahaiak gehiengoz hartuko ditu erabakiak.

5.3. Komunikazio eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak helbide honetan izango du egoitza: Ugasko, 5 bis, lehen solairua, 48014-Bilbo).

5.4. Epaimahaiak nortasuna egiazta dezatela eska diezaieke hautagaiei hautaketa-prozesuan zehar, edonoiz.

5.5. Oinarri hauetan eta Bizkaiko Foru Aldundiko Epaimahaien Jardunbideari buruzko Eskuliburuan ezarrita ez dagoen guztirako, epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta deialdia ondo bideratu dadin beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

5.6. Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan zehar, nor bere espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die hautagaiei.

5.7. Epaimahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu konfidentziasuna bermatzeko. Azterketak, ahal dela, norenak diren jakin barik zuzenduko dira, ahozko azterketak, jendaurrean irakurri beharreko idatzizko ariketak edo lan praktikoak direnean izan ezik.

5.8. Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio GUFeko Gobernu Batzordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpena iragarri-taulan argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

5.9. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, GUFEn iragarri-taulan eta ifas.bizkaia.eus web-orrian argitaratuko dira hautaketa-prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzak; argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezkotzat izango dira eta, beraz, ondorio berak izango dituzte.

6. *Kalte-ordainak*

Epaimahaietan parte hartzea dela-eta egin beharreko egonaldiak, lankidetzak eta abar ordaintzeko, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan zein ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio; azken dekretu horren bidez, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko dekretua hirugarren aldiz aldatzen da (EHAA, 122. zenbakia, 2006ko ekainaren 28koa).

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

1. Hautagaiek aukeratzeko, lehiaketa-oposizioa erabiliko da, txanda hauen arabera: Askea, desgaitasunen bat duten pertsonentzako, barne-igoerakoa eta desgaitasunen bat dutenentzako barne-igoerakoa, deialdiko oinarri berezietan xedatutakoaren arabera.

2. Deialdiaren oinarri espezifikotik adierazitako ariketak edo ariketek osatuko dute oposizio-fasea; era berean, Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiaren berri izatea eskatuko da. Fase hau gainditzeko, hautagaiek nahitaezko ariketa guztiak egin beharko dituzte, eta ariketa baztertzaila guztiak gainditu.



3. Lehiaketa-fasea, oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek eskaera-orrian aurkeztu eta egiaztatzen dituzten merezimenduen balorazioan datza, eta deialdiaren azalzen diren baremo zehatzen arabera eurentariko bakoitzari dagozkien puntuak hautagai bakoitzari emanek egingo da.

4. Lehiaketa-fasea ez da baztertzalea izango eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko ariketak gainditzeko orduan; oposizio-faseko nahitaezko ariketa guztiak egin eta baztertzaleak gainditzen dituzten hautagaientzat baino ez da izango.

Ez dira kontuan hartuko emandako epearen barruan egiaztatu arren eskabidearekin batera adierazi ez diren merezimenduak, ezta eskabidearekin batera adierazi arren egiaztagiria aurkezteko epearen aurretik edo ondoren frogatu diren merezimenduak ere.

Nolanahi ere, aurkeztutako merezimenduak zenbatzeko erreferentzia-data beti izango da deialdiaren oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren eguna, salbu eta hizkuntza-eskakizunaren betekizuna, berau berariazko oinarrietan aurreikusitako euskara-ariketa idatzia egiteko eguna baino lehen egiaztatu beharko baita.

5. Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzalea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzalea, berriz, gainerako plazetan. Nahitaezko euskara-azterketa baztertzalea gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek derrigorrezko eskakizun hori ezarrita ez duten gainerako lanpostuetarako hautaketa-prozesuan jarraituko dute; ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu gisa zenbatuko da, hala badagokio.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatutik ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundiari, erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, idatzizko euskara-proba egin aurretik, euskararen egiaztagiria edo tituluak aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Hautagaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badituzte hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatuzetik salbuesteko da.

Zazpigarrena. — Oposizio-fasearen hasiera eta garapena

1. Hautaketa-prozesua oposizio-fasearekin hasiko da. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak onesten dituen GUFeko gerentearen ebazpenean argitaratuko da lehen ariketa zer egunetan, zer ordutan eta zer tokitan egingo den; ebazpen hori GUFEn iragarki-taulan zein web-orrian argitaratuko da, bai halaber Bizkaiko Aldizkari Ofizialean duen xedapen-zatia.

2. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendari buruzko ebazpena argitaratzen denetik lehen ariketa egin arte, bi (2) hilabeteko epea utzi behar da, gutxienez.

3. Hautagaiek jarduteko hurrenkera Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egindako zozketaren arabera zehaztuko da, Estatuko Administrazio Orokorreko langile izateko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak betetzeko eta funtzionario horien lanbide-sustapenerako Araudi Orokorra onetsi zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Deialdian ez badago inor zozketan ateratako letraz hasten den deiturarik duenik, alfabetoko hurrengo letren bidez ezarriko da hurrenkera, kasuaren arabera.

5. Hautagaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Bertaratzen ez direnak bazter geratuko dira, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak modu librean aintzat hartutako kasuetan izan ezik.



Probak egiten diren egunean jarritako errekurtsua ebatzen ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dituzte probak. Kautelaz egindako ekitaldiek ez dute baliorik izango, baldin eta errekurtsua ezesten bada.

6. Haurdunaldi arriskutsuagatik edo behar bezala egiaztatutako erditzeagatik izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua amaitu edo ariketaren bat egin, prozesua amaitu eta geroraturako faseak gainditu egin beharko ditu, eta ezin izango dira atzeratu, gainerako izangaiak prozesua arrazoizko denboren arabera ebatzeko duten eskubidea kaltetu ez dadin. Hori guztia Epaimahaia balioztatu beharko du, eta, nolana ere, prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egingo dira faseak.

7. Ariketa bat amaitzen denetik hurrengo hasi arte gutxienez hirurogeita hamabi (72) ordu igaro beharko dira, eta epea gehienez egutegiko berrogeita bost (45) eguneko izan daiteke. Hori guztia, alde batera utzi gabe oinarri espezifikoetan egun berean hainbat ariketa aldi berean egitea xedatu ahal izango dela.

8. Hautaprobak hasita ariketa batzuk egin behar badira, ariketa horiei dagozkien iragarkiak GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko ditu epaimahaiak, gutxienez ariketak hasi baino hamabi ordu lehenago, ariketa bera bada, edo hogeita lau ordu lehenago, beste ariketa bat bada.

9. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dituzte desgaitasuna duten pertsonentzat, gainerako parte-hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, betiere egokitzapenaren bidez ariketen edukiari garrantzia kentzen ez bazaio edota ariketetan eska daitekeen gaitasun-maila jaisten ez bada.

10. Oposizio-faseko ariketaren edo ariketen zuzenketa bukatzen denean, epaimahaiak zerrenda hauek argitaratuko ditu GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian, kalifikazioekin batera:

- a) Barne-igoerako txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerako txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.
- c) Desgaitasuna dutenen txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda, eta,
- d) Ariketak gainditu dituzten gainerako hautagaien zerrenda.

Euskara-azterketa egindakoan, zerrenda horiek bereiz osatuko dira, kontuan hartuta derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten plazak diren ala ez.

11. Oposizio-faseko azken ariketa gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratzen denean amaituko da oposizio-fasea.

Zortzigarrena. — Nola tratatuko diren jokabide iruzurgilea eta lehia desleiala

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzeko duen edozein hautagai, jokabide horrek edozein proba normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu. Epaimahaiburuak berehala emango dio jarduketan berri Erakundeko Gerentziari, eta gertatutako jasoko du dagokion bilera-aktan. Halaber, hautaketa-prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili lehenago aipaturako printzipioak saihesteko erabili ahal den gailu edo baliabide teknologikorik, eta kasu bakoitzean argitaratzen den jarraibide-orria izango da atal honetan ezarritakoa zehazteko eta garatzeko epaimahaiak erabiliko duen tresna. Hautagai batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa-prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan-poltsan.

Bederatzigarrena. — Lehiaketa-fasearen hasiera eta garapena

Oposizio-fasea amaitutakoan lehiaketa-faseari emango zaio hasiera.

1. Agiriak aurkeztea

- a) Interesdunek eskaera-orrian alegaturako merezimenduen jatorrizko dokumentazioa eta haren kopia aurkeztu beharko dituzte, biak alderatzeko, edo, bestela, horretarako eskumena duen organoak behar bezala egiaztatutako kopia.



Betekizun eta baldintza horiek beteta, oposizio-fasea gainditu ez duten baina errekurtsua jarri duten pertsonak ere aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa, kautelaz, errekurtsu horri buruzko ebazpenak hasierako fase edo aldi hori gainditzea ekar badezake.

- b) Horrez gainera, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuak ofizioz egingo du merezimenduen ziurtapena barne-igoerako txandako hautagaien kasuan eta GUFEn zerbitzuak eman dituzten hautagaien kasuan, eskaera-orrian hala eskatu badute.
- c) Emandako gainerako zerbitzuak egiaztatzeko, berariaz emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eranskin gisa atxikitzen den ereduaren arabera.

2. *Aurkezteko tokia*

Dokumentazioa GUFEn erregistro nagusian aurkeztuko da (helbidea: Ugaskobi-dea, 5 bis, 1. solairua, Bilbo).

3. *Aurkezteko epea*

Dokumentazioa aurkezteko, egutegiko hogeitabi (20) eguneko epea egongo da, zerrendak jendaurrean jartzen direnetik aurrera.

4. *Agiriak ez aurkeztea*

Eskaera-orrian alegatutako merezimenduen ziurtagiriak ez badira adierazitako epean aurkezten, merezimenduak ez dira baloratuko. Horrez gainera, merezimenduen azterketatik ondorioztatzen bada hautagai batek ez duela adierazpenean alegatutako merezimenduren bat, merezimendu hori ezin izango da baloratu, baina ez da oztopo izango gainerakoak baloratzeko.

39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsik egonez gero, iragarkia argitaratuko da ifas.bizkaia.eus web-orrian (lan publikoaren eskaintza), interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar (10) egun balioduneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, merezimenduak ez direla baloratuko lehiaketa-fasean.

Hamargarrena. — Hautapoben kalifikazioa

1. *Oposizio-fasea*

Deialdiaren oinarri berezietan adierazi den eran kalifikatuko dira oposizio-faseko ariketak.

2. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasearen kalifikazioa lortzeko, merezimenduen baremoaren arabera emandako puntuak batuko dira.

3. *Azken kalifikazioa*

3.1. Aukera-saioen azken kalifikazioa, lehiaketa-fasean eta oposizio-fasean lortutako puntuazioen batura izango da.

3.2. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27. artikulua 2. zenbakian —4/2005 Legeak emandako idazketan— xedatutakoarekin bat etorriz, gaikuntza-berdintasuna gertatuz gero, lehentasuna emakumezkoen emango zaie emakumezkoen ordezkariak %40tik beherakoa den administrazioaren kidego, eskala eta kategorietan. Hori hala izango da baldin eta beste hautagaiarengan hautematen ez bada sexu-bereizkeriarik eragin gabe aipaturiko neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoirik, hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.

3.3. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, onartutako artean berdinketarik badago, hurrenkera ezartzerakoan hauek izango dute lehentasuna: lehenik, oposizio fasean punturik gehien lortu duenak; bigarrenik, lehen ariketan puntuazio altuena lortu duenak, gero bigarrenen, eta horrela jarraituko da jokatzeko; hirugarrenik, GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; laugarrenik, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; bosga-



rrenik, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan denborarik luzeena egin duenak, eta, azkenik, zaharrenak.

Hamaikagarrena. — Hautatutako pertsonen zerrenda

1. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako zerrendak argitaratuko ditu. Zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera egingo dira, eta, bertan, oposizio-faseko ariketa bakoitzaren kalifikazioa eta guztira lortutako puntuen batura jasoko dira.

2. Lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita dauzkaten plazak betetzea, eta, hautagaiak hautatzeko orduan, hizkuntza-eskakizunik altuena egiaztatu dutenek izango dute lehentasuna. Hori kontuan hartuta, epaimahaiak hautatutako zerrendak egiteko, lehenik, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendak erabiliko ditu, hizkuntza-eskakizun altuenetik txikinera; ondoren, berdin jardungo du derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendekin. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan ezarritako eran egiaztatu ez duten hautagaiak ezin izango dituzte inola ere bete derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak.

3. Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 61. artikulua 8. zenbakian ezarritakoa betetzeko, epaimahaiak proposamen osagarri bat egingo du, honako kasu hauetan erabil dadin: hautagaien batek agiriak aurkezten ez dituenean edo faltsutzen dituenean, edo bere plazaz jabetzen ez denean, jabetzeari uko egiten dionean edo eskatutako baldintzak eta eskakizunak egiaztatzen ez dituenean.

Hamabigarrena. — Agiriak aurkeztea**1. Eskatzen diren agiriak**

1.1. Proposatzen diren hautagaiak deialdi honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte; zehazki, honako hauek:

- a) Jaiotza-ziurtagiria, dagokion erregistro zibilak emana. Ziurtagiri horren ordez, Erregistro Zibilak emandako ziurtagiri arrunta, familia-liburuarena edo filiazio-liburuarena erakutsi ahalko da —agiriaren data dena delakoa—, hura legeztatu beharrik gabe.
- b) GUFeko Lan Osasuneko Unitateak emandako ziurtagiria, dagozkion eginkizunak betetzeko lan-gaitasuna egiaztatzen duena, oinarri hauen eta deialdi bakoitzeko berariazko oinarrien arabera. Horretarako, hautatutako pertsonak proba eta azterketa egokiak egin beharko dituzte. Horiek egiteari uko eginez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.
- c) Diziplinazko espediente baten bitartez, inolako administrazio publikoren zerbitzutik bereizi ez dutelako aitortpena; bai eta administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ezgaitasun eta bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean, eta Estatuaren Administrazio, Gizarte Segurantzaren eta beraien menpeko izakunde, erakunde eta enpresen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan ezarritako ezgaitasun eta bateraezintasuneko kariatarik inolakoetan ez dagoelakoa ere.
- d) Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikuluan eskatutako tituluen fotokopia, behar bezala erkaturik. Deialdiaren oinarri berezietan zehaztuta daude zeintzuk diren plaza bakoitzerako tituluak.
- e) Elkargokide izatearen ziurtagiria, nahitaezkoa denean.
- f) Sexu-delitugileei buruzko erregistro zentralaren ziurtagiri negatiboa, nahitaezkoa denean.

1.2. Hautagaien batek ezin baditu aurkeztu aurreko paragrafoan zehaztutako agiriak, eta behar den moduan justifikatzen badu hori, zuzenbidean onetsitako edozein frogaz erabiliz egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

**2. Aurkezteko tokia**

Dokumentazioa GUFeko Pertsonak Zuzentzeko Departamentuan aurkeztuko da (helbidea: Ugaskobidea, 5 bis, 1. solairua, Bilbo).

3. Aurkezteko epea

Agiriak aurkezteko, egutegiko hogeita (20) eguneko epea egongo da, hautatutako enpresen zerrendak jendaurrean jartzen direnetik aurrera.

4. Salbuespenak

Funtzionario publikoek eta administrazio publikoetako lan-kontratudun langileek ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenean edo kontratazioan egiaztatu behar izan zituzten baldintza eta betekizunei buruzko agiriak. Atxikita dauden organismoaren ziurtagiria besterik ez dute aurkeztuko, beren izaera eta espedientean agertzen diren gainerako inguruabarrak egiaztatuz.

5. Agiriak ez aurkeztea

Aparteko arrazoiek eragindako kasuak alde batera utzita, aipatutako epearen barruan agiriak aurkezten ez dituztenak edo aurkeztu dituzten agiriaren arabera bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak ezin izango dira kontratatu, eta haien jarduketara guztiak baliogabetuta geratuko dira. Horrez gainera, eskaera-orrain egindako faltukeria dela-eta erantzukizuna eskatu ahal izango da.

Hala gertatzen bada, hamaikagarren oinarriko 3. zenbakian aipatu kontratazio osagarriaren proposamenari helduko zaio eta, baliogabetze horren ondorioz, dei egindako plaza kopurua betetzeko adina hautagai kontratatuzko proposamena egingo da.

Hamahirugarrena. — Destinoen aukeraketa

1. Dokumentuak aurkezteko epe berean, hautatutako pertsonak destinoa aukeratu beharko dute. Hautagaiek hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean duten hurrenkeraren arabera aukeratu beharko dute destinoa. Hala ere, lehentasuna izango dute barne-igoerako txandetatik datozen hautagaiek.

2. Horretarako, prozesua amaitutakoan, oposizio-fasea gainditu duten hautagai guztiak zerrenda bakarrean sartuko dira, bakoitzak hautaketa-prozesuan guztira lortu duen puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera, zein txandatan parte hartu duten kontuan hartu gabe, barne-igoerako txanden bidez parte hartu dutenak izan ezik, beren zerrenda propioa osatuko baitute.

3. Zerrenda hori egoki antolatuzko, derrigorrezko euskara-ariketak gainditu dituztenei emandako «gai» kalifikazioaren ordean, deialdiaren oinarri berezietan hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzeagatik ezarritako puntuazioa jasoko da zerrendan.

4. Destinoak aukeratzeko orduan ez da kontuan hartuko hautagaiak zer hizkuntza-eskakizunen bidez aukeratuak izan diren, betiere derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plaza betetzerik geratzen badira. Izan ere, lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuak betetzea.

5. Hala eta guztiz ere, desgaitasunen bat duten pertsonentzako txanden bidez onartzen direnek destinoa aukeratzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko eskaria egin diezaioke GUFeri, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasunak edo antzeko beste arrazoi batzuk direla eta. Egoera horiek behar bezala egiaztatu beharko dira. Lanpostuak adjudikatuzko eskumena duen organoak aldaketa hori egitea erabakiko du baldin eta behar bezala justifikatuta badago, eta aldaketak ahalik eta eragin txikiena sortu behar du lehentasun-hurrenkeran, desgaitasuna duen pertsonak lanpostua eskuratzeko bestekoa soilik.

Hamalagarrena. — Lan-kontratudun langileak kontratatzea**1. Organo eskuduna**

GUFeren Estatutuak aldarazteari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluko 7. zenbakian ezarritakoarekin bat, Gobernu Batzordeak epaimahaiak pro-



posatutako hautagaiak kontratatuko ditu, harik eta deialdian eskaini eta aurrekontu-dotazioa duten plaza guztiak bete arte.

2. *Kontratazioak jakinaraztea eta argitaratzea*

Interesdunei jakinaraziko zaizkie kontratu-proposamenak, eta iragarki-taulan argitaratuko dira, GUFEn webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Hamabosgarrena. — Lanpostuan hastea

1. *Baldintzak*

Kontratatzeko eginbidean, ohikoez gain, Estatuko Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta haien menpeko erakunde, organismo eta enpresen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuaren 13. artikuluan eskatutako adierazpenak agerrarazi beharko dira.

2. *Epea*

Pertsonak Zuzentzeko Departamentuak, Erakundeko zentro eta zerbitzuen antolaketan zein zerbitzu-egoerak kontuan hartuta, kontratazioa egiteko epea adieraz dezake; epe hori gehienez ere hiru hilabete izango da, dagokion iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. *Epea luzatzea*

GUFeko Gerentziak luzatu ahal izango du lanpostuaz jabetzeko epea, interesdunak hala eskatuta, baina inoiz ere ez adierazitako epearen erdia baino gehiago.

4. *Lanpostuari uko egitea*

Pertsonaren batek lanpostuari uko egin diola ulertuko da baldin eta oinarri honetako 2. zenbakian adierazitako epearen barruan edo —hala denean— emandako luzapenaren barruan kontratua sinatzen ez badu justifikatutako arrazoirik eman gabe. Hala gertatzen bada, hamaikagarren oinarriaren 3. zenbakian aipatutako kontratazio osagarriko proposamena egingo da —hurrenkeraren arabera—, deialdiko plaza kopuruan balio gabetze horren ondorioz sar daitezkeen hautagaiak kontratatzeko.

Hamaseigarrena. — Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetan gainditu duten pertsonen zerrendekin lan-poltsak osatuko dira, eta aldi baterako kontratuak egiteko erabili ahal izango dira indarreko araudiak aurreikusitako kasuetarako, bai eta kategoría horietako gainerako kontratazioak egiteko ere. Horretarako, hurrengo ataletan ezarritakoa, GUFEn ordezkaritza duten zentral sindikalekin lan-poltsak kudeatzeko adostutako irizpideak (Gobernu Batzordeak onartutakoak) eta aplikatzekoak diren gainerako inguruabarrak hartuko dira kontuan.

Hamazazpigarrena. — Kexak eta iradokizunak

Hautagaiak uneoro izango dute kexak eta iradokizunak egiteko aukera; horretarako, idazki bat igorri behar diote Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko Burutzari, Erakundearen erregistrora aurkeztuta edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen bideetako edozein erabilita. Kexak eta iradokizunak kexa eta iradokizunen erregistroan jasoko dira, eta dagokien tratamendua emango zaie.

AZKEN ARAUAK

1. Oinarri hauetan ezarri ez den guztirako, honako hauek bete beharko dira hautaprobak egitean: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea; Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko Administrazioaren Zerbitzupeko Langileen Sarrerari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilak osatzen dituzten langileak sustatzeko eta lanpostuak hornitzeko Araudi Orokorra; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina, apirilaren



18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia; Toki Administrazioko funtzionarioen aukerabidearen oinarriko erregela eta gutxieneko egitarauari buruzko ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua; Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea; apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; ezintasunen bat duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea eta haietzako lanpostuen hornidura araupetzen dituen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua; eta Bizkaiko Foru Aldundiaren epaimahaietarako eskuliburua.

2. Deialdia, haren oinarriak eta deialdiaren ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen Legean ezarritako kasuetan eta eran.

3. Hain zuzen ere, deialdi honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke GUFeko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa txandaren arabera dagokion Bilboko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan, baina ezin izango da errekurtso biak batera jarri.



Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

1. Deialdia / Convocatoria

Form fields for Taldea eta azpitalea / Grupo y subgrupo, Categoría / Categoría, Txanda / Turno, and various selection options like Lehiaketa, Oposaketa, etc.

2. Norberaren datuak / Datos personales

Form fields for personal data including Lehen deitura / Primer apellido, Bigarren deitura / Segundo apellido, Izena / Nombre, NAN-ANZ / DNI-NIE, Jaioteguna / Fecha nacimiento, Sexua / Sexo, Zeure telefono mugikorrean jaso nahi dituzu notak? / ¿Deseo recibir en su teléfono móvil las notas?, Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso, PK / P.C., Herria / Localidad, Lurraldea / Territorio, Mugilkorra / Móvil, Beste telefonoak / Otros teléfonos, Posta elektronikoa / Correo electrónico, and Desgaitasuna duen pertsona / Persona con discapacidad.

3. Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Form fields for Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa ekartzen dut / Aporto la siguiente titulación exigida en las bases específicas and Eskatzen den beste dokumentu batzuk ekartzen ditut (gidatzeko baimena eta bestelakoak) / Aporto otros documentos exigido/s (permiso de conducir y otros).

4. Hizkuntza / Idioma

Form field for Oposizio-faseko arriketak zein hizkuntza ofizialetan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi ditudan adierazten dut / Deseo realizar los ejercicios de la fase de oposición en la lengua oficial, euskera o castellano.

5. Euskera

Egiatapena / Acreditación. Baimena ematen diot GUFeri hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluen eta Ziertagiriaren Erregistro Bateratuan egiaztatzeko: hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi izanez gero, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da / Autorizo al IFAS a su comprobación en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera; quienes pretenden acreditar perfiles lingüísticos al amparo del Decreto 47/2012 deberán aportar la documentación correspondiente.

Form field for Hurrengo egiaztapen ekartzen dut / Aporto la siguiente acreditación with options 1HE / PL1, 2HE / PL2, 3HE / PL3, 4HE / PL4.

Azterketa / Examen

Form field for Euskara azterketa eskatzen dut / Solicito examen de euskera with options 1HE / PL1, 2HE / PL2, 3HE / PL3, 4HE / PL4.

6. 1/ 2021 Foru Aruak ezarritako tasaren ordainketa / Abono de la tasa establecida por la Norma Foral 1/ 2021

Form fields for Tasaren ordainketa egin dut eta ziurtagiria ekartzen dut / He realizado el pago de la tasa y aporto justificante, Salbuetsita nago tasa ordaintzera eta ziurtagiria ekartzen dut / Estoy exento/a del pago de la tasa y aporto justificante, and various selection options like %33ko desgaitasuna edo handiagoa / Discapacidad de grado igual o superior al 33%, Familia ugariko kidea naiz / Soy miembro de familia numerosa, etc.

Administrazioaren zuzendaria / Ejemplar para la Administración



Behan izenpetzen duenak eskakizun honetan aipaturiko aukera saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen benetakoak direla bertan jarritako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren aldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitzemanenez.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas, para ingreso a la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmentetodos los datos que figuran en esta solicitud.

tokia / lugar	urtea / año	hilabetea / mes	eguna / día
		n.202 (eko)	k

Sinadura / Firma

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kudeatzailea / Gerente del Instituto Foral de Asistencia Social

Europar Parlamentuko dato pertsonalen babeserako 2016/679 Araudia betetzeko, jakinarazten dizugu eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko direla. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan-poltsak kudeatzea ere. Lan-poltsak beste administrazio batzuei utziko zaizkie eskatuz gero. GUFeko Zerbitzu Orokorren Zuzendaria da fitxategiaren arduraduna, beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezabatzeko, organo horretara jo beharko duzu (Ugasko bidea 5bis-1 solairua 48014 Bilbo).

Según el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo relativo al tratamiento de datos personales, le informamos que los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo y que serán, en su caso, cedidas a otras administraciones públicas previa solicitud por éstas. El responsable de este fichero es el Director de Servicios Generales del IFAS, y ante él podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación. (Camino de Ugasko 5 bis, 1ª planta 48014 Bilbao).

Jarraibide orokorrak

- Zehaztasunak ale guztietan argi irakur daitezkeela bermatzeko.
- Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- Interesduna hautaketa-prozesurako onartua izateko prozesuan eskainitako plaza uztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

Inprimakia izenpetu egin behar duzu

Instrucciones generales

- Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- La admisión al proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras.

No olvide firmar el impreso

Interesatuarentzako jarraibideak

Eskaera-orriari ondokoak batu beharko zaizkio nahitaez:

- Nortasun agiri nazionalaren edo, atzerriarra izanez gero, horren baliokidea den agiriaren fotokopia.
- Deialdiaren oinarri berezietan eskaturiko titulu edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda. Lehiaketa-oposizioetan, merezimenduak horretarako berenberegiz prestatutako ereduaren aurkeztu behar dira.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen txandarako izangaiak desgaitasun-ziurtagiria ekarri beharko dute.
- Izen-emate tasa ordaindu izanaren ziurtagiria
- Tasa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, hala badagokio

Instrucciones para la persona interesada

A la instancia se acompañará necesariamente:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o documento equivalente en caso de ser extranjero.
- El título o los derechos abonados para obtenerlo, exigido en las bases específicas de la convocatoria.
- Relación de méritos alegados. En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico.
- Los y las aspirantes que participen por el turno de personas con discapacidad deberán, además, aportar certificación de la discapacidad.
- Justificante del pago de la tasa de inscripción
- Justificante de exención del pago de la tasa, si fuera preceptivo



Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás



Merezimenduak / Méritos

Norberaren datuak / Datos personales

NAN / DNI	Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre
Taldea eta azpitaldea / Grupo y subgrupo	Kategoria / Categoría		

Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

n. 202 (e)ko

k

Sinadura / Firma



Alegatutako merezimenduak

Lehiaketa-oposizioaren kasuan, merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduan aurkeztu behar dira (merezimenduen orria). Merezimenduei dagokienez, deialdiaren oinarri berezietan adierazitako merezimenduak alegatu beharko dira.

Merezimenduak egiaztatzea

Oposizio aldia gainditzen dutenek 20 egun naturaleko epea izango dute eskabidean aipatu zituzten merezimenduen egiaztatzeak aurkezteko, azken ariketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Horretarako, oposizio aldia gainditu duten hautagaien zerrendarekin batera eskaeraorrian aipatutako merezimenduen egiaztatzeak aurkezteko epea zein egunetan amaitzen den argitaratuko da. Lehiaketa aldia baloratzeko orduan, epe horren barruan eta hurrengo leerroaldean zehaztuko den moduan eta tokietan aurkeztutako agiriak baino ez dira kontuan hartuko.

Interesdunek jatorrizko agiriak eta agiri horien kopia aurkeztu beharko dituzte, egiaztatzeke, edo, bestela, horretarako beren beregiko eskumena duen organoak behar bezala egiaztatutako kopia. Agiriak GUFeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ugasko bidea 5bis- 1.solairua 48014 Bilbo) edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetako batean. Betekizun eta baldintza horiek beteta, agiriak aurkeztu ahal izango dituzte, kautelaz, oposizio aldia gainditu ez duten eta errekurtsioak aurkeztu duten pertsonen, errekurtsio horri buruzko ebazpenak hasierako aldi hori gainditzea ekar badezake.

Alegación de méritos

En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico ("Méritos"). En la relación de méritos alegados deberán incluirse los méritos que se indican en las bases específicas de la convocatoria.

Acreditación de méritos

Los y las aspirantes que hayan superado la fase de oposición dispondrán de un plazo de 20 días naturales desde que se hagan públicas las relaciones de aprobados y aprobadas de la fase de oposición para presentar la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. A estos efectos, junto con la relación de aspirantes que hayan superado la fase de oposición, se publicará la fecha de finalización del plazo de presentación de la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. Solo será tenida en cuenta, a la hora de valorar la fase de concurso, la documentación presentada en el citado plazo y del modo y en los lugares que, al efecto, se determinan en el párrafo siguiente.

Las personas interesadas deberán aportar, para su cotejo, documentación original junto con copia de la misma o, en su caso, copia debidamente cotejada por órgano competente al efecto. La presentación se realizará bien en el Registro General del IFAS (C/ Camino de Ugasko, 5 bis, 1º- 48014 Bilbao), bien en cualquiera de los lugares previstos por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015. Con los mismos requisitos y condiciones podrán presentar la documentación, de forma cautelar, aquellas personas que, no habiendo superado la fase de oposición, hubieran presentado recurso cuya resolución pudiera implicar la superación de dicha fase inicial.

**OINARRI BEREZIAK
FISIOTERAPEUTA****1. Deialdiko plazak**

Fisioterapeutaren (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) bi (2) plaza lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko deialdia egiten da. III. hizkuntza-eskakizuna dute ezarrita, eta honela banatuta dago deialdia:

- Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena.
- Txanda askea: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena.

Plazen deialdi honetan azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan aipatzen den Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko Txostena sartu da.

2. Titulazioa eta jatorriko plaza

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren Xedapen Iragankorren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, hauxe da eskatzen den titulazioa: Fisioterapiako Diplomaturaren edo Unibertsitate Graduaren titulua edo beste unibertsitate-titulu batzuk izatea edo horiek jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio horiek guztiak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoak dira.

Kontuan harturik zer ezartzen duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 LEDek bere 3. Xedapen Iragankorrean, barne-sustapeneko txandaren bidez parte hartu nahi dutenek, eskatutako titulazioa izateaz gain, lan-kontratudun langile finko izan beharko dute, azpitaldeko plaza batean –C1– edo azpitalde bereko plaza batean –A2–. Halaber, jatorriko plazan zerbitzuan bi (2) urte beteta izan beharko dituzte, GUFeko lan-kontratudun langile finko legez.

3. Ariketak**3.1. Oposizio-fasea**

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, nahitaezkoak eta baztertzailak.

Lehen eta bigarren ariketak egun berean egingo dira.

3.1.1. Lehen ariketa

Teorikoa izango da: 90 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), 180 minutuan. Lau erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa eranskinetako gai guztiei buruzkoa izango da.

Barne-sustapeneko txandako hautagaiek lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiazta ez ditzaten, hautagai horiek ez dituzte erantzun beharko gai-zerrendako I. zatiari buruzko galderak, eta, ondorioz, proportzionalki murriztuko zaie ariketako galderak erantzuteko denbora.

3.1.2. Bigarren ariketa

Praktikoa izango da: idatziz, 45 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 5 galdera), 90 minutuan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa hau gai-zerrendako III. zatiari buruzkoa izango da.

3.1.3. Hirugarren ariketa

III. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da, edozein kasutan.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatuturik ageri



direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berriazko baimena emango dio GUFeri, erregistro horretan egiaztatpena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztageria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiten dutenek, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko.

3.2. *Lehiaketa*

Lehiaketan, oposizioa gainditu duten hautagaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

Eskaera-orrian aipatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa epaimahaiak, oposizio-faseko ariketa guztien kalifikazioa argitaratzeko, ateratzen duen iragarkian ezarritako epean aurkeztu beharko da.

4. **Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

4.1. *Lehiaketa-fasea*

Merezimenduen baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

4.2. *Oposizio-fasea*

- a) Lehenengo ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie.

Hautagai bakoitzaren kalifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean eta GUFeren web-orrian argitaratuko da, lortutako gainerako kalifikazioekin batera.

4.3. *Amaiera*

Hautagaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Administrazio Publikoan fisioterapeuta plaza batean (A taldea, A-2 titulazio-azpitalea) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoetan: 0,050 puntu hileko edo hilaren zatiki bakoitzeko, gehienez 9 puntu. Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERRENDA****I. ZATIA****ZUZENBIDE PUBLIKOA: ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak. Herritarren oinarrizko eskubide eta eginbeharrak. Ekonomia- eta gizarte-politikaren printzipio gidariak.

2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Euskal Herriaren eskumenak. Euskal Herriko botereak. Eusko Legebiltzarra. Lehendakaria. Eusko Jaurlaritza.

3. gaia: Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa: I. Titulua: Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen eskumenak.

4. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzkoa: II. Titulua: Bizkaiko Gobernua eta Administrazioa. I. Kapituluak: Foru Aldundia eta III. Titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren harremanak.

5. gaia: 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzeari buruzkoa. 1. artikulua: izaera, sailkapena eta araubide juridikoa; 2. artikulua: helburuak eta eginkizunak; 3. artikulua: beharrezko egitura organikoa; 4. artikulua: gobernu Batzordea eta 5. artikulua: gobernu Batzordearen eskumenak.

6. gaia: Administrazio Zuzenbidearen iturriak. Legea: kontzeptua eta motak. Lege-indarra duten arau-xedapenak. Erregelamendua: kontzeptua, izaera eta motak. Erregelamendua egiteko ahalaren titulartasuna. Foru-erakundeetatik datozen arau-xedapenak.

7. gaia: Administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta prozedurak erregulatzeko arauak. Prozedurako interesdun motak. Administratuen eskubideak. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: I. Titulua; IV. Titulua eta 13,14 eta 53. artikulua).

8. gaia: Administrazio-antolamendua. Administrazio-antolamenduaren printzipioak. Antolatzeko ahala. Administrazio-organoak. Kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoen kontsiderazio berezia. (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: Atariko Titulua: I. Kapituluak; II. Kapituluak: 1. Atala, 2. Atala, 3. Atala, 1. azpiatala eta 4. Atalak).

9. gaia: Administrazioaren zerbitzura dauden lan-kontratuko langileen araubidea: lan-kontratuen modalitateak (2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: I. Titulua, I. Kapituluak, 4. Atala: lan-kontratuen modalitateak eta abenduaren 18ko 2720/1998 Errege Dekretuaren I. Kapituluak, Langileen Estatutuaren 15. artikulua garatzen duena iraupen jakineko kontratuen arloan).

II. ZATIA**ZUZENBIDE PUBLIKOA: ZATI BEREZIA**

10. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. Titulua: xedapen orokorrak. II. Titulua: Prestazioak eta zerbitzuak, funtzio- eta lurralde-antolamendua eta plangintza gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.

11. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Atariko Titulua. Xedapen Orokorrak. I. Titulua. III. Kapituluak. Mendekotasuna eta haren balorazioa. IV. Kapituluak: eskubidea aitortzea.

12. gaia: 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa.



13. gaia: 138/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, inoren mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzen foru sareko zentroen barne araudiaren eredia onartzen duena.

14. gaia: GUFeko Erabiltzaileen Arretarako Unitatea (GUFeko Gobernu Batzordearen Erabakia, 2005eko apirilaren 28koa).

15. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2014 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, inoren laguntza behar duten pertsonentzako egoitzetako foru zerbitzu publikoa eskuratzeko araubidea eta egonaldi iraunkorreko zerbitzua emateko baldintzak arautzen dituena. I. Kapituluak: xedapen orokorrak. II. Kapituluak: erabiltzaileak. 5. eta 6. artikulak. III. Kapituluak: egonaldi iraunkorrean dauden mendeko pertsonentzako egoitzen zerbitzu publikoa eskuratzeko administrazio-prozedura. 9. eta 10. artikulak. 1. eta 2. atalak.

16. gaia: 103/2012 Foru Aldundiaren Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko mendekotasuna duten pertsonentzako egoitzen foru-sareko egoitza-unitate soziosanitarioetara sartzeko araubidea arautzen duena. I. Kapituluak: xedapen orokorrak. III. Kapituluak: egoitzetako foru-sareko egoitza-unitate soziosanitarioetara sartzeko araubidea arautzen duen administrazio-prozedura. VII. Kapituluak: balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzorde Teknikoa.

17. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena.

18. gaia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea: Atariko Titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Atariko Titulua. II. Titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jardura-protokoloa, GUFeren lan-eremuan.

19. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: I., II. eta III. tituluak.

20. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: I. Kapituluak. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. II. Kapituluak. Laneko segurtasuna eta osasuna babesteko arriskuen prebentzioaren arloko politika. III. Kapituluak: eskubideak eta betebeharrak.

III. ZATIA

FISIOTERAPIA

21. gaia: Zinesiologia: definizioa eta kontzeptua. Printzipio mekanikoak. Estatikari, dinamikari eta zinetikari buruzko nozioak.

22. gaia: Zinesiterapia aktiboa eta pasiboa. Sailkapena. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak.

23. gaia: Artikulazioak. Motak, ardatzak, mugimendu-planoak. Artikulazio-mekanika: artikulazio-balantzea.

24. gaia: Muskuluak: betetzen dituzten funtzioak. Giharretako lan motak. Nagusitasun zinetikoko muskuluak, tonikoak nagusi. Muskuluen kontrakzioa: muskuluen balantzea.

25. gaia: Nerbio-sistema. Arku erreflexua. Propiohartzaileak. Muskulu-tonua. Mugimenduak koordinatzea eta kate zinetikoak aztertzea.

26. gaia: Muskuluen berreziketa: helburuak. Zinesiterapian mobilizatze, koordinatze eta laguntzeko funtsezko printzipioak.

27. gaia: Martxa. Faseak. Martxa normala eta patologikoa.

28. gaia: Oreka eta egonkortasuna. Grabitate-zentroa. Funtsezko jarrera-posizioak. Egonkortasunean esku hartzen duten faktoreak.

29. gaia: Mekanoterapia. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak.



30. gaia: Termoterapia. Krioterapia. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak.
31. gaia: Hidroterapia. Balneoterapia. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak.
32. gaia: Maiztasun baxuko, ertaineko eta altuko korronteak. Motak. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak.
33. gaia: Ultrasoinuak. Fototerapia. Laserterapia. Aplikazio terapeutikoa eta kontraindikazioak.
34. gaia: Masoterapia. Kontzeptuak. Aplikazio-sistemak eta kontraindikazioak. Masoterapiako teknika bereziak: drainatze linfatikoa, zeharalde sakona, ehun konjuntiboaren masajea.
35. gaia: Ariketa tratamendu-metodo gisa: helburuak. Zinesiterapiari aplika dakizkiokeen funtsezko printzipioak. Mota, aplikazio-teknikak eta kontraindikazioak.
36. gaia: Jarrera-zuzenketa. Jarrera motak. Jarrera txarraren arrazoiak. Tratamendu-posturen balorazioa eta aldaketak. Fisioterapeutaren zeregina.
37. gaia: Estimulazio neuromuskular propiozeptiboa. Neuromuskulak errazteko teknikak.
38. gaia: Kontrakturak eta deformazioak: prebentzioa. Ferula aktiboak. Tratamendurako hautazko metodoak.
39. gaia: Espastikotasuna: berreziketa-metodoak.
40. gaia: Ohean edo ibilgetuta dagoen pertsonaren fisioterapia-prozesuak.
41. gaia: Fisioterapia bihotzeko eta hodietako gaixotasunetan: bihotz-funtzioa berrezteko eta errehabilitatzeko metodoak. Ekarpen arterial periferikoa errazteko metodoak. Zainen itzulera errazteko metodoak. Funtzio linfatikoa errazteko metodoak.
42. gaia: Fisioterapia arnas gaixotasunetan: funtsezko printzipioak. Bronkioetako drainatzea. Birrikak mobilizatzeko eta hedatzeko teknikak. Arnas entrenamendua.
43. gaia: Ekarpen fisioterapeutikoak tratamendu kirurgikoetan: jokabide fisioterapikoa ebakuntza aurrean eta ondoren.
44. gaia: Fisioterapia traumatologian: balorazioa, helburuak eta tratamendu fisioterapikoko metodoak haustura eta luxazioetan, belauneko, mokorreko eta sorbaldako protesiak. Tratamendu fisioterapikoak patologia osteoartikularretan eta zati bigunetakoetan: tendinitisa, bursitisa, meniskopatia, sinovitisa.
45. gaia: Fisioterapia erreumatologian: artropatia inflamatorioetako eta endekape-nezko erreumatismoetako (artrosia) teknika eta tratamendu fisioterapeutikoak.
46. gaia: Fisioterapia nerbio-sistema zentralaren patologia neurologikoan: balorazioa eta helburu fisioterapikoak. Tratamendu fisioterapeutikoko teknikak eta metodoak: traumatismo kraneoentzefalikoa (TCE), istripu zerebrobaskularra (BZA), muineko lesioak, esklerosi anizkoitza eta ataxia. ELA. Parkinsona.
47. gaia: Fisioterapia nerbio-sistema periferikoaren patologia neurologikoan: balorazioa eta helburu fisioterapikoak. Tratamendu fisioterapeutikoko teknikak eta metodoak ohikoenak diren afekzioetan: aurreko poliomieltis akutua, plexo brakialaren eta beheko gorputz-adarraren lesioak, paralisi periferiko tronkularrak.
48. gaia: Mina. Fibromialgia. Erregina-sindrome mingarri konplexua. Min miofaszialaren sindromea. Balorazioa, helburuak eta tratamendu fisioterapikoa.
49. gaia: Protesi ortopedikoak. Ekarpen fisioterapeutikoak.
50. gaia: Ortesiak. Laguntza teknikoak. Kanpoko egonkortze-sistemak. Martxaren berreziketa.
51. gaia: Bendajeak: bendaje funtzionala. Bendaje neuromuskularra. Aplikazioak, teknika, indikazioak eta kontraindikazioak.
52. gaia: Anputatutako pertsonak: ekarpen fisioterapikoak.
53. gaia: Geriatriako terapiaren ezaugarriak: planteamendu orokorra. Oztopo arkitonikoak eta eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko laguntza-produktuak.
54. gaia: Adinekoen erorikoak: etiologia, intzidentzia eta prebentzioa.



55. gaia: Dementia eta praxien galeran duen eragina. Lehen eta bigarren mailako prebentzioa. Dementia duen pertsona maneiatzeko jarraibide orokorrak.

56. gaia: Patologia psikiatrikoa duen pertsona: jokabidearen erabilera harreman terapeutikoaren bidez.

57. gaia: Banakako arreta-planak: helburuak eta ezaugarriak. Huraosatzen duten elementuak eta hura egiten esku hartzen duten profesionalak. Fisioterapeutaren zeregina eta diziplinarteko gainerako taldearekiko koordinazioa. Egoitza-arretako zentroko pertsonarengan zentratutako arreta-eredua.

58. gaia: Etika asistentziala erabiltzaileentzako arretan. Atxikipenik gabeko metodologia.

59. gaia: Teknologia berriak lan fisioterapeutikoan: estimulazio multisentsoriala: funtsezko printzipioak; esku-hartzearen ondorioak desgaitasun intelektuala, dementia, garuneko kaltea eta gaixotasun mentala duten pertsonengan.

60. gaia: Gurpil-aulkiak laguntza-zentroetan. Indikazio eta erabilera egokiak.



OINARRI BEREZIAK

GOI-MAILAKO GIZARATERATZE-TEKNIKARIA**1. Deialdiko plazak**

Goi-mailako gizarateratze-teknikarien (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) berrogeita bat (41) plaza lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko deialdia egiten da. III. hizkuntza-eskakizuna dute ezarrita, eta honela banatuta dago deialdia:

- Barne-sustapeneko txanda: hamabi (12) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, eta bost (5) plaza derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.
- Desgaitasuna dutenentzako barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena.
- Txanda askea: hamazazpi (17) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak eta lau (4) plaza derrigorrezkoa ez den III. Hizkuntza-eskakizuna dutenak.
- Desgaitasuna dutenentzako txanda askea: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena eta plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna duena.

Plazen deialdi honetan azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan aipatzen den Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko Txostena sartu da.

2. Titulazioa eta jatorriko plaza

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren Xedapen Iragankorren 1. zerbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, hauxe da eskatzen den titulazioa: goi-mailako gizarateratze-teknikariaren titulua edo baliokidea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoa.

Kontuan harturik zer ezartzen duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 LEdek bere 3. Xedapen Iragankorrean, barne-sustapeneko txandaren bidez parte hartu nahi dutenek, eskatutako titulazioa izateaz gain, lan-kontratudun langile finko izan beharko dute, azpitaldeko plaza batean —C2— edo azpitalde bereko plaza batean —C1—. Halaber, jatorriko plazan zerbitzuan bi (2) urte beteta izan beharko dituzte, GUFeko lan-kontratudun langile finko legez.

3. Ariketak**3.1. Oposizio-fasea**

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu. Lehenengo biak (2) nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira eta hirugarren ariketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila, aldiz, gainerako plazetarako.

Lehen eta bigarren ariketak egun berean egingo dira.

3.1.1. Lehen ariketa

Teorikoa izango da: 50 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), 90 minutuan. Lau erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa eranskineko gai guztiei buruzkoa izango da.

Barne-sustapeneko txandako hautagaiek lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiazta ez ditzaten, hautagai horiek ez dituzte erantzun beharko gai-zerrendako I. zatiari buruzko galderak, eta, ondorioz, proportzionalki murriztuko zaie ariketako galderak erantzuteko denbora.

3.1.2. Bigarren ariketa

Praktikoa izango da: idatziz, 45 galdera arteko test bat egin beharko da (gehi erreserbako 5 galdera), 90 minutuan gehienez. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa hau erantsitako gai-zerrendako II. zatiari buruzkoa izango da.



3.1.3. Hirugarren ariketa

Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa eta baztertzaila, ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren hautagaiek maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute.

Derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna, borondatezkoa eta ez-baztertzaila, ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren hautagaiek maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute, hala badagokio.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFeri, erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztalaria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiten dutenek, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko.

3.2. Lehiaketa

Lehiaketan, oposizioa gainditu duten hautagaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

Eskaera-orrian aipatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa epaimahaiak, oposizio-faseko ariketa guztien kalifikazioa argitaratzeko, ateratzen duen iragarrian ezarritako epean aurkeztu beharko da.

4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

4.1. Lehiaketa-fasea

Merezimenduen baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

4.2. Oposizio-fasea

- a) Lehenengo ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenei.
Gainerako kasuetan, honako banaketa honen arabera kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:
 - I. hizkuntza-eskakizuna: 1,5 puntu.
 - II. hizkuntza-eskakizuna: 3 puntu.
 - III. hizkuntza-eskakizuna: 4,75 puntu.

Hautagai bakoitzaren kalifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean eta GUFEn web-orrian argitaratuko da, lortutako gainerako kalifikazioekin batera.

4.3. Amaiera

Hautagaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Administrazio Publikoan goi-mailako gizarteratze-teknikari plaza batean (C taldea, C-1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoetan: 0,060 puntu hileko edo hilaren zatiki bakoitzeko, gehienez 11 puntu. Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak. Herritarren oinarrizko eskubide eta eginbeharrak. Ekonomia- eta gizarte-politikaren printzipio gidariak.

2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Euskal Herriaren eskumenak. Euskal Herriko botereak. Eusko Legebiltzarra. Lehendakaria. Eusko Jaurilaritza.

3. gaia: Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa: I. Titulua: Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen eskumenak.

4. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzkoa: II. Titulua: Bizkaiko Gobernua eta Administrazioa. I. Kapitulumua: Foru Aldundia eta III. Titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren harremanak.

5. gaia: 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzeari buruzkoa. 1. artikulua: izaera, sailkapena eta araubide juridikoa; 2. artikulua: helburuak eta eginkizunak; 3. artikulua: beharrezko egitura organikoa; 4. artikulua: gobernu Batzordea eta 5. artikulua: gobernu Batzordearen eskumenak.

6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua: xedapen orokorrak. I. titulua I. kapitulumua 3. artikulua: jarduteko gaitasuna eta 4. artikulua: interesdunaren kontzeptua. IV. titulua: II. kapitulumua: prozeduraren hasiera. 54. artikulua: hasiera motak.

7. gaia: GUFEn egitura organikoaren erregelamendua: I. titulua, I. kapitulumua: eskumen-eremua. II. kapitulumua: egitura organikoa. II. titulua. I. kapitulumua: zuzendaritza- eta aginte-egitura.

8. gaia: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena. Lehenengo kapitulumua: xedapen orokorrak. Bigarren kapitulumua: lanpostuen hizkuntza-eskakizunak.

9. gaia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea: atariko Titulua. I. Titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: atariko Titulua. II. Titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektorre Publikoaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak (I. kapitulumutik VIII. kapitulumura).

10. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: I., II. eta III. titulumuak.

11. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: I. kapitulumua. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. GUFEn lan-eremuan sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa.

II. ZATIA**ZATI BEREZIA**

12. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. Titulua: xedapen orokorrak (1. artikulutik 8.era).

13. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Atariko titulua. Xedapen orokorrak. I. Titulua. III. Kapitulumua. Mendekotasuna eta haren balorazioa. IV. Kapitulumua: eskubidea aitortzea



14. gaia: GUFeko Erabiltzaileen Arretarako Unitatea (GUFeko Gobernu Batzordearen Erabakia, 2005eko apirilaren 28koa).
15. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena.
16. gaia: Dibertsitate funtzionala duten pertsonak: kontzeptua, motak eta ezaugarri orokorrak. Behar fisikoak, psikologikoak, sozialak eta emozionalak.
17. gaia: Arreta Plan Indibidualizatua: helburuak eta ezaugarriak. Hura osatzen duten elementuak eta hura egiten esku hartzen duten profesionalak.
18. gaia: Dibertsitate funtzionala duen pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua.
19. gaia: Asistentzia-politika. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko jardunbide egokiak.
20. gaia: Adimen-desgaitasuna. Definizioa, sailkapena, esku hartzeko estrategiak, haien bizitza errazteko eta laguntzeko.
21. gaia: Desgaitasun fisikoa. Definizioa, ezaugarriak.
22. gaia: Espekto autistaren nahasmenduak. Definizioa, ezaugarriak eta jarduteko terapiak.
23. gaia: Haurren garun-paralisia. Definizioa, ezaugarriak.
24. gaia: Endekapenezko gaixotasun neurologikoak. Definizioa, ezaugarriak. Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren rola.
25. gaia: Desgaitasuna eta patologia psikiatrikoa. Sintomak. Maneiua.
26. gaia: Sexualitatea eta desgaitasuna. Kontzeptua. Esku hartzeko metodologia.
27. gaia: Hartutako kalte zerebrala. Definizioa eta ezaugarriak.
28. gaia: Ahozko hizkuntzaren nahasmenduak. Definizioa. Ezaugarriak. Komunikazio-sistema alternatiboak.
29. gaia: Dibertsitate funtzionala duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea. Kontzeptua. Programak.
30. gaia: Desgaitasuna eta zahartzea. Adimen-desgaitasuna duen pertsona bat zahartzeko prozesua. Babesak.
31. gaia: Dibertsitate funtzionala duen pertsonarekiko komunikazioa eta tratua. Ezaugarriak. Komunikazio-estrategiak.
32. gaia: Dibertsitate funtzionala duten pertsonen aisia eta denbora librearen. Esku hartzeko programak.
33. gaia: Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria eta aniztasun funtzionala duten pertsonen familiekin duen harremana. Harreman on baterako arauak.
34. gaia: Estimulazio multisentsoriala. Funtsezko printzipioak.
35. gaia: Jokabide-ohitura positiboak sustatzeko estrategiak.
36. gaia: Adimen-desgaitasuna duten pertsonen dolua. Definizioa. Motak. Etapak. Aurre egitea.
37. gaia: Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta jarduera instrumentalak. Esku hartzeko programak.
38. gaia: Talde-lana. Koordinazio multiprofesionala. Jardunbide egokiak.
39. gaia: Buruko gaixotasuna duten pertsonak. Sintomatologia. Maneiua.
40. gaia: Lanaren plangintza. Metodoak. Ebaluazio-teknikak: hasierakoa, prozesuena, baliabideena eta emaitzena.

**OINARRI BEREZIAK
GIZARTE HEZITZAILEA****1. Deialdiko plazak**

Gizarte-hezitzaileen (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) hogeita lau (24) plaza lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko deialdia egiten da. III. hizkuntza-eskakizuna dute ezarrita, eta honela banatuta dago deialdia:

- Barne-sustapeneko txanda: lau (4) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, eta hiru (3) plaza derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.
- Txanda askea: hamahiru (13) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak eta bi (2) plaza derrigorrezkoa ez den III. Hizkuntza-eskakizuna dutenak.
- Desgaitasuna dutenentzako txanda askea: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena eta plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna duena.

Plazen deialdi honetan azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan aipatzen den Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko Txostena sartu da.

2. Titulazioa eta jatorriko plaza

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 Legegituzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren Xedapen Iragankorren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, hauxe da eskatzen den titulazioa: Gizarte Hezkuntzako Diplomaturaren edo Unibertsitate Graduaren titulua edo beste unibertsitate-titulu batzuk, hau da, Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak emandako gaikuntza duen Gradua, Lizentziatura edo Diplomatura, izatea edo horiek jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio horiek guztiak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoak dira.

Kontuan harturik zer ezartzen duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 LEdek bere 3. Xedapen Iragankorrean, barne-sustapeneko txandaren bidez parte hartu nahi dutenek, eskatutako titulazioa izateaz gain, lan-kontratudun langile finko izan beharko dute, azpitaldeko plaza batean –C1– edo azpitalde bereko plaza batean –A2–. Halaber, jatorriko plazan zerbitzuan bi (2) urte beteta izan beharko dituzte, GUFeko lan-kontratudun langile finko legez.

3. Ariketak**3.1. Oposizio-fasea**

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu. Lehenengo biak (2) nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira eta hirugarren ariketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila, aldiz, gainerako plazetarako.

Lehen eta bigarren ariketak egun berean egingo dira.

3.1.1. Lehen ariketa

Teorikoa izango da: 90 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), 180 minutuan. Lau erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa eranskinetako gai guztiei buruzkoa izango da.

Barne-sustapeneko txandako hautagaiek lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiazta ez ditzaten, hautagai horiek ez dituzte erantzun beharko gai-zerrendako I. zatiari buruzko galderak, eta, ondorioz, proportzionalki murriztuko zaie ariketako galderak erantzuteko denbora.



3.1.2. Bigarren ariketa

Praktikoa izango da: idatziz, 45 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 5 galdera), 90 minutuan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Ariketa hau gai-zerrendako III. zatiari buruzkoa izango da.

3.1.3. Hirugarren ariketa

Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa eta baztertzaila, ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkeztzen diren hautagaiak maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute.

Derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna, borondatezkoa eta ez-baztertzaila, ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkeztzen diren hautagaiak maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute, hala badagokio.

GUFEn edo Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatutik ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio GUFERI, erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztagiria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatutik salbuesteko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiten dutenek, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko.

3.2. *Lehiaketa*

Lehiaketan, oposizioa gainditu duten hautagaiak aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

Eskaera-orrian aipatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa epai-mahaiak, oposizio-faseko ariketa guztien kalifikazioa argitaratzeko, ateratzen duen iragarkian ezarritako epean aurkeztu beharko da.

4. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

4.1. *Lehiaketa-fasea*

Merezimenduen baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

4.2. *Oposizio-fasea*

- a) Lehenengo ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenei.
Gainerako kasuetan, honako banaketa honen arabera kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:
 - I. hizkuntza-eskakizuna: 1,5 puntu.
 - II. hizkuntza-eskakizuna: 3 puntu.
 - III. hizkuntza-eskakizuna: 4,75 puntu.



Hautagai bakoitzaren kalifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean eta GUFEn web-orrian argitaratuko da, lortutako gainerako kalifikazioekin batera.

4.3. *Amaiera*

Hautagaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA**

1. Administrazio Publikoan gizarte-hezitzaile plaza batean (A taldea, A-2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoetan: 0,060 puntu hileko edo hilaren zatiki bakoitzeko, gehienez 11 puntu. Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****I. ZATIA****ZUZENBIDE PUBLIKOA: ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak. Herritarren oinarrizko eskubide eta eginbeharrak. Ekonomia- eta gizarte-politikaren printzipio gidariak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: Euskal Herriaren eskumenak. Euskal Herriko botereak. Eusko Legebiltzarra. Lehendakaria. Eusko Jaurlaritza.
3. gaia: Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa: I. Titulua: Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen eskumenak.
4. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzkoa: II. Titulua: Bizkaiko Gobernua eta Administrazioa. I. Kapitulumua: Foru Aldundia eta III. Titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren harremanak.
5. gaia: 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzeari buruzkoa. 1. artikulua: izaera, sailkapena eta araubide juridikoa; 2. artikulua: helburuak eta eginkizunak; 3. artikulua: beharrezko egitura organikoa; 4. artikulua: gobernu Batzordea eta 5. artikulua: gobernu Batzordearen eskumenak.
6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua: xedapen orokorrak. I. titulua I. kapitulumua 3. artikulua: jarduteko gaitasuna eta 4. artikulua: interesdunaren kontzeptua. IV. titulua: II. kapitulumua: prozeduraren hasiera. 54. artikulua: hasiera motak.
7. gaia: GUFEn egitura organikoaren erregelamendua: I. titulua, I. kapitulumua: eskumen-eremua. II. kapitulumua: egitura organikoa. II. titulua. I. kapitulumua: zuzendaritza- eta aginte-egitura.

II. ZATIA**ZUZENBIDE PUBLIKOA: ZATI BEREZIA**

8. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. Titulua: xedapen orokorrak (1. artikulutik 8.era bitartekoak).
9. gaia: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeak modu integralean babesteari buruzkoa.
10. gaia: 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.
11. gaia: 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.
12. gaia: 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.
13. gaia: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. I. Titulua: xedapen orokorrak. II. Titulua: haur eta Nerabeen Eskubideak eta horien egikaritza.
14. gaia: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. III. Titulua: II. Kapitulumua: Administrazioaren babes-ekintza Arrisku eta Babesgabezia Egoeretan.
15. gaia: 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa-



ren Erregelamendua onartzen duena: XI. Titulua: adingabe atzerritarrak. XIII. Titulua: atzerritarren dokumentazioa.

16. gaia: Uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua, gizarte-babesik gabeko arriskuan dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituena: I. Titulua: xedapen Orokorrak. II. Titulua: haur eta nerabeen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak egoitza-harrerako baliabideetan.

17. gaia: uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua, gizarte-babesik gabeko arriskuan dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituena: III. Titulua: egoitza-harrerako baliabideen baliabide materialak. IV. Titulua: egoitza-arretaren ezaugarriak eta betekizun funtzionalak. V. Titulua: egoitza-harrerako baliabideetako langileen betekizunak.

18. gaia: Haurtzaroari buruzko nazioarteko araudia: haurren eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20koa.

19. gaia: 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Udal eta Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuetako (BALORA) arrisku eta babesgabezia egoeren larritasuna baloratzeko tresna eguneratzen duena. Tresnaren testuingurua. I. zatia: arrisku eta babesgabezia egoerak: definizioa eta larritasun mailak.

20. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena.

21. gaia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea: atariko Titulua. I. Titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: atariko Titulua. II. Titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak (I. kapitulutik VIII. kapitulura).

22. gaia: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa: atariko Titulua. I. Titulua: sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak.

23. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: I., II. eta III. tituluak.

24. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: I. kapitulua. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. GUFEn lan-eremuan sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa.

25. gaia: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena. Lehenengo kapitulua: xedapen orokorrak. Bigarren kapitulua: lanpostuen hizkuntza-eskakizunak.

III. ZATIA

GIZARTE-HEZKUNTZA

26. gaia: Garapen-prozesuaren etapak: haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa (definizioa, ezaugarriak eta beharrak).

27. gaia: Helduarora igarotzea: esku hartzeko eta deslotzeko prozesuak, eta gizarteratzeko laguntza. Gizarte- eta lan-arloko orientazioa emantzipazio-prozesuetan.

28. gaia: Jokabide disruptiboak: definizioa eta jarduerak.

29. gaia: Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea: definizioa, funtzioak, ezaugarriak eta esku-hartze mailak (banakakoa, taldekoa eta komunitarioa).

30. gaia: Adingabeei laguntzeko moduak: ereduak eta estrategiak, laguntza ona emateko funtsezko elementuak, haurtzaroko eta nerabezaroko loturen garapena eta esku-hartze profesionalen arteko harremana.

31. gaia: Familietatik eta/edo hurbileko pertsonengandik banandutako haur eta nerabeei dolu edo galera prozesuetan laguntzea.



32. gaia: Hezkuntza-harremana esku-hartzearen funtsezko elementu gisa. Hezitzailearen eta hezitzailearen arteko lotura. Hurbiltasuna eta erabilgarritasuna funtsezko elementu gisa hezkuntza-harremana eraikitzeko. Gizarte-hezitzailea helduen erreferente gisa.

33. gaia: Bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak: definizioa, profil psikosoziala eta jatorria, jarduera-esparrua, ibilbideak eta esku-hartze prozesuaren doikuntza.

34. gaia: Haurra familiari lotzea eta berarengandik banantzea. Banantze-prozesuko faseak. Adingabearen beharrak. Harrera-prozesua.

35. gaia: Haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua: I. Kapituluak: oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuaren esku-hartze esparrua (2., 3. eta 4. atalak). II. Kapituluak: zerbitzu espezializatuaren antolamendua eta eginkizunen banaketa. III. Kapituluak: esku hartzeko prozesu teknikoaren laburpena.

36. gaia: Haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua: IV. Kapituluak: harrera eta ikerketa. V. Kapituluak: hasierako ebaluazioa.

37. gaia: Haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua: VI. Kapituluak: erabakia hartzea eta kasu plana. VII. Kapituluak: kasu-plana abian jartzea. VIII. Kapituluak: espedienteak ixtea.

38. gaia: Haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua: IX. Kapituluak: egoitza-harrera babesteko baliabide espezializatu gisa». 1., 2., 3., eta 4. atalak.

39. gaia: Haurren babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko eskuliburua: IX. Kapituluak: egoitza-harrera babesteko baliabide espezializatu gisa». 5. eta 6. atalak.

40. gaia: Bullying-a harrera-zentroen barruan eta kanpoan: definizioa, ezaugarriak eta jarduerak, bai erasotzailearekin bai biktimarekin.

41. gaia: Hezkidetzak eta genero-ikuspegiaren integrazioa. Hezitzaileen zeregina berdintasunezko hezkuntza.

42. gaia: Etika eta deontologia profesionala esku-hartze sozioedukatiiboari aplikatuta.

43. gaia: Teknologia berriak. Adingabeek segurtasunez erabiltzea. Erabilera txarra-ekin lotutako arriskuak.

44. gaia: Nerabeak eta adikzioak harrera-zentroetan.

45. gaia: Haurren aurkako tratu txarrak. Definizioa. Haurren tratu txarren tipologiak.

46. gaia: Familiar indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan duten haur eta nerabeekin esku hartzea.

47. gaia: Sexu-abusua. Adingabeen beharrak. Nola heldu hezkuntza ikuspegitik.

48. gaia: Etxebizitzaren urteko plangintza: helburua, helburu orokorrak, espezifikoak, ekintzak, esku hartzeko esparruak.

49. gaia: Etxebizitzako programa, jarduera eta ekintzen ebaluazioa: tipologia, adierazleak, tresnak eta behin-behinekotasuna.

50. gaia: Antolamendua, eguneroko bizitza eta tutoretza-funtzioa etxebizitzan. Haurren eta nerabeen parte-hartzea etxebizitzako dinamikan.

51. gaia: Hezkuntza-prozesua: gatazkaren prebentzioa eta kudeaketa: kontzeptua, kausak, ondorioak, gatazka baten aurreko jarduerak eta gatazkak konpontzeko teknikak.

52. gaia: Zentroko hezkuntza proiektua. Barne erregimenaren araudia. Elkarbizitzarako gida. Kontzeptuak eta edukiak.

53. gaia: Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea egoitza-zentroetan (banakakoa, familiarakoa, taldekoa eta komunitarioa) hartutako adingabeak dituzten familiarekin. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana zentroko harrera-prozesuan. Gurasoen, seme-alaben eta harrera-zentroetako profesionalen arteko harremana. Haurrek eta nerabeek harrera-zentroetan duten harremana beren erreferentziazko ohiko ingurunearekin eta harreraren aurreko familia-/gizarte-ingurunearekin.

54. gaia: Harrera-zentroa ikuspegi komunitario batetik: sistemekin, eragileekin, baliabideekin eta haurren eta nerabeen zerbitzu erantzunkideekin koordinatzeko sare sistematikoko lana.



55. gaia: Taldeko hezkuntza-esparrua aukera-espazio gisa: proiektuen diseinua, garapena eta ebaluazioa.

56. gaia: Taldea, babeserako, afektibitateko, segurtasunerako eta ikaskuntzarako elementu gisa: baliabidean elkarrekin bizi diren pertsonen kohesioa. Harrera-zentroetan talde bateko kide izatearen sentimendua.

57. gaia: Haurren Zerbitzua laguntzeko kanpo-zerbitzu eta baliabideak: Familian esku hartzeko programak, babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeei zuzenduak, bai halaber ijito-etniako babesgabetasun-egoeran dauden haur nerabeei zuzenduak.

58. gaia: Haurren Zerbitzua laguntzeko kanpo-zerbitzu eta baliabideak: Nerabeei zuzendutako hezkuntzari buruzko programa espezializatua. Haurren aurkako abusu sexuali buruzko programa espezializatua.

59. gaia: Haurren Zerbitzua laguntzeko kanpo-zerbitzu eta baliabideak: Familian esku hartzeko programa espezializatua, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriari buruzkoa. Familian esku hartzeko programa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatua. Gazteentzako arreta integraleko programa.

60. gaia: Talde-lana: bileren kudeaketa. Talde bateko rola eta horiek zehazten dituzten faktoreak.